

oman ta zabal zazu.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILE DOKTOREAK ESPEZIALIZATZEKO  
KONTRATATZEKO DEIALDIA  
(2014)**

## HITZAURREA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, EAEko ikerketa-zentro nagusia den aldetik, kalitateko ikerketa-jarduerak egiteko erantzukizuna dauka. Alabaina, unibertsitateko ikerketa-taldeak beti ez dira gai ikerketa estrategikoaren erronkei aurre egiteko, dauzkagun baliabideak batzuetan ez baitira behar adinakoak. Gauzak horrela, deialdi honen helburua doktoreak espezializatzea eta unibertsitateko ikerketa-taldeetan sartzea da, aldi baterako kontratazioa sustatuta.

Ikuspegi horretatik abiatuta, eta UPV/EHUko Ikerketa Planeko irizpideei jarraituta, deialdi honen helburua jakintza-arlo guztietako doktoreen ikertzeko gaitasuna hobetzea da, ikerketa-jardueren kopuruak eta kalitateak gora egin dezaten.

Deialdi honetako zenbateko osoa, guztira, 900.000 eurokoa da, Programa Kontratuarekin finantzatuta.

Hala, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena eginda eta Gobernu Kontseiluak 2014ko ekainaren 5ean onespena emanda, Ikerketako Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratzea erabaki du, jarraian zehazten den moduan:

### 1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

1.1. Deialdi honen helburua aldi baterako kontratazioa sustatuz doktoreak espezializatzea eta unibertsitateko onartutako ikerketa-taldeetan sartzea da (ikerketa-taldeak hemendik aurrera), edozein jakintza-arlo zientifikotan.

1.2. Deialdi honen ondorioetarako, onartutako ikerketa-taldea izango da 2008tik 2013ra UPV/EHUK edo Eusko Jaurlaritzak antolatutako taldeko deialdiren batean onartu diren ikerketa-taldeak.

Hori guztia bat dator Europar Batasunaren Batzordeak zehaztutako Ikertzaileak Kontratatzeko Jokabide Kodearekin (EEE/2005/251/EE).

### 2. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

2.1. Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikuluan (aurrerantzean ZTBL) ezarritakoari egingo diote men, eta bertan jasotzen ez den guztian, berriz, Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluan jasotakoari, ondorengo berezitasunekin:

2.1.a. Doktore-titulua dutenekin baino ezin izango dira egin.

2.1.b. Nagusiki ikerketa-lanak egingo dituzte, ikertzaileek maila handiko hobezintasuna eta espezializazio profesionala lortzeko eta horien esperientzia profesionala sendotzeko.

### 3. OINARRIA. ESKATZAILEEN BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, hautagaiek baldintza hauek bete behar dituzte:

3.1. Doktore-gradua izatea eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

Atzerriko zentroetan lortutako doktore-titulua homologatu egin behar da, eskaera onartuz gero. Eskaerak aurkezterakoan tituluak ez du zertan homologatuta egon.

3.2. Eskatzaileak ziurtatzea gutxienez bi lan dauzkala argitaratuta, berak bakarrik edo beste batzuekin batera eginak, CNEAIk kasuan kasuko jakintza-arlorako onartutako irizpideekin bat datozenak. Doktorego-tesia edota argitaletxeren batek plazaratutako doktorego-tesia ez dira kontuan hartuko kasu honetan.

3.3. Eskaerak aurkezteko azken egunean lehenengo doktore-tituluak ezin ditu hiru urte baino gehiago eduki. Doktoregoa lortu zeneko eguntzat hartuko da doktorego-tesia irakurri eta onartutako eguna. Aipatu epea kontatzerakoan ez dira sartuko Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko, gaixotasun larriagatiko edo istripuagatiko atsedenaldiak; betiere, medikuak emandako bajak hiru hilabete edo gehiagokoa izan behar du.

3.4. Doktorego ondoko edo doktoreen hobekuntzarako laguntzarik ez edukitzea edo halakorik jaso ez izatea.

3.5. Doktorego bat baino gehiago duten ikertzaileen kasuan, aurreko puntuetako baldintzak lortutako lehen doktoregoari aplikatuko zaizkio.

3.6. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaile atzerritarrek Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena dutela ziurtatu behar dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Legeari jarraiki, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan.

3.7. Ez UPV/EHU<sup>n</sup> ez beste erakunderen batean kontratu mota honekin 4 urte baino gehiago igaro ez izatea, edo, 4.2. oinarrian aipatzen den 12 hilabeteko luzapena aplikatu ahal izanez gero, 3 urte baino gehiago.

#### **4. OINARRIA. IRAUPENA**

4.1. Deialdi honen babesean sinatuko den kontratua 12 hilabeterako izango da, formalizatzen den egunetik hasita.

4.2. Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, beste 12 hilabete luzatu ahal izango da, betiere, aurrekontuan baliabide nahikoak baldin badaude, deialdiaren hitzaurrean ezarritakoaren arabera.

Kontratua luzatu ahal izateko kontratatutako ikertzaileak gutxienez bi ekarpen egin behar izango ditu kontratua indarrean sartu aurreko hamabi hilabeteetan, CNEAIk kasuan kasuko jakintza-arlorako onartutako irizpideekin bat datozenak (Ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeako Batzorde Nazionalarena, ebaluazio-eremu bakoitzeko irizpide espezifikokoak ezartzekoak. BOE, 287 zk., 2012-11-29koa).

Horrez gain, Europako erkidegokoak ez diren atzerritarrei bizileku-baimena indarrean baldin badute luzatu ahal izango zaie kontratua.

4.3. Zenbait egoera berezitan (aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzio edo harrera, edoskitzaroko arriskua eta aitatasuna) eten egingo da kontratuaren iraunaldiaren zenbaketa.

#### **5. OINARRIA. KONTRATUETAKO LANSARIA**

5.1. Deialdi honen barruan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko lansari gordina 25.751 eurokoa izango da, 14 ordainketatan banatuta. Ikertzaile horiek lanaldi osoaren % 79,5eko arduraldia izango dute.

5.2. Arduraldi hori % 100era handitu daiteke, kontratatutako ikertzaileei dagokien ikerketa-taldeak kanpo-finantzaketa lortuz gero.

## **6. OINARRIA. KONTRATATUTAKO DOKTOREAK ATXIKIKO DIREN IKERKETA TALDEEN EZAUGARRIAK**

6.1. Ikerketa-taldeetako kideek UPV/EHUREKIKO lan-harreman motari dagozkion baldintzetakoren bat (6.2. oinarria) eta osaera-baldintzak (6.3. oinarria) bete beharko dituzte.

6.2. UPV/EHUREKIKO lan-harreman motak:

- a. UPV/EHUKO irakasleak.
- b. Ramón y Cajal programako ikertzaileak.
- c. UPV/EHURA atxikitako Ikerbasque Fundazioko ikertzaileak.
- d. CSIC-UPV/EHU zentro mistoetara atxikitako CSICEKO ikertzaileak.

6.3. Ikerketa-taldeen osaera-baldintzak:

- a. Ikerketa-taldea 6.2. oinarrian aipatutako talderen bateko kidea den eta arduraldi osoa duen doktore batek zuzenduko du.
- b. Arau orokor gisa, ikerketa talde batek ezin izango du doktoreak espezializatzeko eskaera bat baino gehiagotan parte hartu deialdi honetan. Kasu bereziren bat gertatuko balitz eta talde batek bi eskaera bermatuko balitu, IGBBK aztertu eta lehentasuna ezarriko die.
- c. Ikerketa-taldeak azken 5 urteotan ikerketa-jarduera koherentea egin izana egiaztatu behar du.
- d. Ikerketa-taldeak I+G proiektuak garatzeko finantzaketa eduki behar du UPV/EHUTIK kanpoko deialdi lehiakorretan; finantzaketa horrek gutxienez 12 hilabete iraun behar du, eskaerak aurkezteko azken egunetik hasita.

Proiektu horiek erakunde hauen deialdi lehiakorren baten barruan egon behar dute:

- i. Europar Batasuneko Esparru Programak
- ii. Arloan eskumenak dituzten ministerioak
- iii. Eusko Jaurlaritza
- iv. Ikerketa-proiektuen kontratuak, urtean 50.000 euro baino gehiagokoak.

Horren harira, ikerketa-talde batek UPV/EHUTIK kanpoko finantzaketa duela esango da ikerketa-taldeko kideren batek aurreko paragrafoetan adierazitako deialdietako ikerketa-proiektu baten taldean parte hartzen badu.

- e. 6.3. oinarrian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten 6.2. oinarriko taldeek aurkeztu dituzten eta gutxienez hiru doktore kideren babesa duten eskaerak IGBBK aztertuko ditu.

- f. Eskatzailearen zuzendari zientifikoak azken sei urteetako (seiurteko aktibo) ikerketa-jardueraren inguruko ebaluazio positiboa egiaztatu beharko du.

## **7. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK**

7.1. Sartzen diren Unibertsitateko sail eta institutuen aldetik beren ikerketa-programa behar bezala garatzeko elkarlana eta laguntza jasotzea, haiek ahal duten neurrian.

7.2. Proposatutako ikerketa-jarduerari loturiko irakaskuntza-lanetan lankidetzan aritzea (urtean gehienez 80 ordu), betiere, tartean den sailarekin ados jarriz gero eta UPV/EHUren zerbitzurako langileei aplikatzen zaien bateraezintasunen araudiari men eginez. Hala, ezin izango dute irakasgaien arduradun izan, azterketarik egin edo ikasleak ebaluatu.

7.3. Onuradunek Unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorak (SGIker) ez ezik atxikitako ikerketa-taldearen azpiegiturak eta materiala ere erabiltzeko eskubidea dute.

7.4. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa-baliabideak erabiltzeko, baita ikerketa egiten ari diren ikastegiko baliabideak erabiltzeko ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez.

## **8. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

8.1. Atxikitako sailean edo institutuan deialdi honetako 16.2. oinarrian ezarritako epean sartzea.

8.2. Atxikita dauden sail edo institutuaren funtzionamendurako arauak jarraitzea, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oporrei dagokienez ere.

8.3. Beren ikerketa-lana atxikitako sailean edo institutuan egitea.

8.4. Kontratutako ikertzaileek atxikitako lekura denboraldi batean agertu behar ez badute, Ikerketaren arloko errektoreordeari baimena eskatzea; betiere, ikerketa-taldeko ikertzaile nagusiak ados egon behar du eta, horrez gain, kanpoan egoteak ikerketa-jarduerekin izan behar du zerikusia.

Biltzar, bilera edo jardunaldi zientifikoetara joateko taldeko ikertzaile nagusiaren eta kontratatutako ikertzailearen atxikitze-sail edo -institutuko zuzendariaren baimena bakarrik behar da. Edonola ere, gainerako langileei aplikatzen zaien araudia aplikatu behar zaie.

8.5. Txosten, formulario eta gainerako agiriak betetzea, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

8.6. Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

8.7. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean Euskal Herriko Unibertsitatearekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ikertzaileak espezializatzeko ematen dituen laguntzen deialdia aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa-jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan, eskerrak emateko atalean.

8.8. Eskumena duten organoek egin ditzaketen finantza-froga eta -kontrolak betetzea eta eskatutako informazio guztia ematea.

8.9. Egindako ikerketatik eratorritako argitalpen, patente, erabilgarritasun-eredu eta jabetza intelektualeko objektu eta obra guztien titularra UPV/EHU dela aitortzea, jabetza industrial eta intelektual horien asmatzailea ikertzaileari aitortuz.

8.10. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeak deialdiko arauak errespetatzea dakar, baita Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta atxikitze-sail eta -institutuek, dauzkaten eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere.

8.11. Ikertzaileen Europako Gutunak ezarritako betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzea.

## **9. OINARRIA. DEIALDIAREN BARRUAN HAUTATUTAKOEN ATXIKITA DITUZTEN IKERKETA TALDEEN BETEBEHARRAK**

9.1. Zuzendari zientifiko bat izendatzea. Zuzendariaren ardura izango da, batetik, akademia- eta ikerketa-lana koordinatzea eta bideratzea; bestetik, hautatutako pertsonen dauzkaten betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzea; eta, azkenik, diru-laguntzen helburua betetzen dela bermatzea.

9.2. Ikertzaileek ikerketa- eta formazio-programa behar bezala garatzen dutela zaintzea. Ikertzaileei ezin zaie dagokien ikerketarekin edo formazio espezifikoarekin zerikusirik ez duen lanik egiteko eskatu.

9.3. Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratututako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta zentroan antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

9.4. Inork laguntzari uko egiten badio, edo laguntzaren bat eteten bada, edo laguntzaren bat eman zeneko egoera aldatzen bada, horren berri ematea Ikerketaren Gestioako Zuzendaritzari, gehienez 10 laneguneko epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik hasita.

9.5. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak betetzea Ikerketaren Gestioako Zuzendaritzak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

9.6. Ikertzaileen Europako Gutunean zehazten diren eskakizunak betetzea.

## **10. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK**

10.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).
- Indarreko araudia bete (1527/2010 ED, Giza Zelulak eta Ehunak Emateko eta Erabiltzeko Bermeen Batzordeari buruzkoa; 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketari buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko Lege Organikoa, 1999koa; eta UPV/EHUko araudia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa).
- CEID/CEISH-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena, aurretikoa eta beharrezkoa, lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian (2014-02-17ko 32 zk.ko EHAAn argitaratua), UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala.

10.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- AMA deklarazioan, biomedikuntzako ikerketan animaliak erabiltzeari buruzkoan (Hego Afrika, 2006), biltzen diren esparru sozial eta zientifikoko balio etikoak errespetatu, eta, bereziki Russell eta Burchen (1959) hiru erreen printzipioa.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko araudia bete (32/2007 Legea, esperimentazioan erabiltzeko animaliak zaintzeari buruzkoa; esperimentazioan eta beste xede zientifiko batzuetarako, irakaskuntza barne, erabilitako animaliak babesteko aplikatu beharreko oinarritzko arauari buruzko 53/2013 Errege Dekretua).
- CEID/CEBA-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena, aurretikoa eta nahitaezkoa, lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian (2014-02-17ko 32 zk.ko EHAAn argitaratua) UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala.

10.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo honetako indarreko araudia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoeekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoak erabiltzeari buruzkoa).
- CEID/CEIAB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena, aurretikoa eta nahitaezkoa, lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian (2014-02-17ko 32 zk.ko EHAAn argitaratua) UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala. Saio klinikoak barne hartzen dituzten jarduerak otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko dute (BOE, otsailaren 7koa).

10.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi-zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula-lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituena, baita 1527/2010 ED ere, Giza Zelula eta Ehunak Emateko eta Erabiltzeko Bermeen Batzordeari buruzkoa.

Horiez gain, giza lagin biologikoak behar bezala lortu eta erabiltzeko, kontuan izan beharko da giza laginekin egindako ikerketari buruzko araudia, hain zuzen ere, 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, biomedikuntzako ikerketako biobankuak baimentzeko eta funtzionatzeko oinarriko baldintzak ezartzen dituena eta biomedikuntzako ikerketako Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituena (BOE, 290 zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

10.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

## 11. OINARRIA. ESKAERAK FORMALIZATZEA

11.1. Ezinbestekoa da eskatzaileak atxiki nahi duen ikerketa-taldeko ikertzaile nagusiak bermea ematea.

11.2. Hautagaiek eskaera bana aurkez dezakete eta ikerketa-talde bakoitzak hautagai baten eskaera bakarrik bermea dezake deialdi honetan.

11.3. Eskaera egiten duten ikertzaile doktoreen zuzendari zientifikotzat hartutako irakasleek 6.2. oinarrian adierazitako taldeetako batekoa izan behar dute.

11.4. Kontratua sinatu baino lehen, Etika Batzordearen aldeko txostena nahitaezkoa izango da, dagokion ikerketa arloan.

11.5. Dokumentu hauen kopia bana aurkeztu beharko da PAPEREAN:

- ❑ **Eskaeraren inprimakia eta ikerketa-proiektuaren memoria**, hartzaile izango den ikerketa-taldeko ikertzaile nagusiaren onespenezkin.
- ❑ **Jarduera garatuko duen sail edo institutuaren baimena.**
- ❑ **Doktore-titulua.** Ikasketak atzerrian eginda izanez gero, dokumentazioari gaztelaniazko edo ingelesezko itzulpena gehitu behar zaio. Kasu horietan, eskaera onartuz gero, kontratuen esleipena ez da behin betikotzat hartuko atzerriko doktore-titulua homologatu arte.
- ❑ **NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.**
- ❑ **3.6. oinarrian adierazten diren kasuetarako, bizileku-baimenaren kopia.**
- ❑ **Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzak emana.**
- ❑ **Euskara mailaren egiaztagiria**

11.6. Ebaluazio-prozesua errazteko, honako dokumentazio hau **aurkeztu beharko da CD-ROMean**, paperean aurkeztu den dokumentazioarekin batera.

- ❑ **Eskaera-orria eta ikerketa-proiektuaren memoria.**
- ❑ **Hautagaiaren curriculum vitae**, inprimaki normalizatuetakoa batean.



- *Ikerketako zuzendari zientifikoaren curriculum vitae*, ezarrita dauden formatuetako batean.

**Adierazitako artxiboak soilik PDF formatuan onartuko dira.**

## **12. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA**

Eskaerak egiteko inprimaki-ereduak Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako Campuseko erregistroetako batean aurkeztu behar dira, edo UPV/EHUren 2002ko irailaren 26ko Erabakian aipatzen diren bulegoetako batean (EHAA, 2002ko urriaren 24koa); era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako prozeduren bitartez ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Hauxe da erregistroetako ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era; ostiraletan, udan, Aste Santuko eta Gabonetako txandetako lanaldi jarraituan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

## **13. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA**

Eskaerak aurkezteko hilabete egongo da, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## **14. OINARRIA. ESKAERAK BIDERATZEA ETA EBALUATZEA**

14.1. Aurreko artikuluan aipatu egunetik hasi eta, gehienez, hogeitun egun naturaleko epean, jasotako eskaeren zerrenda argitaratuko da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errektoreordetzetako iragarki-tauletan. Zerrendan adieraziko da nork ez dituen dokumentu guztiak aurkeztu eta, zehazki, eskaera bakoitzean zer dokumentu falta den. Informazio hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean ere argitaratuko da: <http://www.ikerkuntza.ehu.es/>

Falta diren dokumentuak eskaeren zerrenda argitaratu eta hamar lanegunen buruan aurkeztu behar dira; alde horretatik, eskaerak ezin dira goitik behera aldatuta berriz aurkeztu, ezta eskatu ez den dokumentazioa entregatu ere.

Epea amaituta falta diren dokumentuak aurkeztu ezean, interesdunak eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta Ikerketako errektoreordeak dagokion ebazpena egingo du.

14.2. Aurkeztutako eskaerak ikusita, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak deialdiko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

14.3. Eskaerak bideratzeko eta ebaluatzeko prozesua Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak antolatuko du. Oinarri honetan zehaztutako 1-4 ebaluazio-irizpideen balorazioa ANEPek, kanpo-prozesu baten bidez, eskaeran adierazitako jakintza-arloa erabiliz.

14.4. Ebaluazio-txostenak IGBBri bidaliko zaizkio eta batzordeak esleipen-proposamena egingo dio Ikerketako errektoreordeari, hark erabakia har dezan.

14.5. Diru-laguntzak esleitzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Irizpidea	Gehieneko puntuazioa
1. Hautagaiek dagokien ikerketa-alarrean egin dituzten ekarpen zientifiko eta teknikoak. Balioespena egingo da curriculum vitaeren ereduko atalen arabera.	30 puntu
2. Ikerketa-proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, baita finantza-aurreikuspen egokia ere.	20 puntu
3. Ikerketako emaitzek arlo akademikoan izan dezaketen eragina eta emaitzak hedatzeko aukera.	20 puntu
4. Hautagaia sartuko den ikerketa-taldearen historial zientifikoa eta teknikoa, taldea osatzen duten kideen kopuruaren arabera.	25 puntu
5. Euskara maila (*)	5 puntu
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>

*Bikaina (91-100), Ona (75-90), Onargarria (55-74), Eztabaidagarria, (25-54), Eskasa (0-24)*

(\*) Oharra: Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu
- Ez da baloratuko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

## 15. OINARRIA. EBAZPENA

15.1. IGBBk behin-behineko ebazpena egingo du. Interesdunei horren berri emango die eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko du. Eskatzaileek ebaluazioan lortutako puntuazioa ere adieraziko du.

Interesdunek gehienez ere 10 eguneko epea izango dute laguntza onartzen duten edo laguntzari uko egiten dioten adierazteko edo beharrezko ikusten dituzten alegazioak aurkezteko.

Esandako epean alegaziorik jasotzen ez bada, edota ez bada beren-beregi adierazten laguntzari uko egiten zaiola, proposamena onartu egiten dela ulertuko da eta, hortaz, ezin izango da beste alegaziorik egin.

15.2. Aipatutako epea igarota, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, honek azter ditzan eta emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpen-proposamena egin diezaion Ikerketako errektoreordeari.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako alegazioak egiteko epean alegaziorik jasotzen ez bada, Ikerketaren arloko errektoreordeak kontratazioaren aldeko edo aurkako behin betiko ebazpena emango du.

Interesdunei kontratazioaren aldeko edo aurkako behin betiko ebazpenaren berri emango zaie, egindako ebaluazioaren kopia batekin batera.

15.3. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du eta bere kontra egiteko honako bide hauek erabil daitezke (batera ez):

- i. Aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa, ebazpena jakinarazi den egunetik hasi eta hilabete baten buruan, ebazpena egin duen organoaren aurrean.

Administrazioarekiko errekurtsu hori aurkeztuz gero, gaitzetsitakotzat hartuko da aurkeztu eta hilabete baten buruan esanbidezko ebazpenik ez badago; kasu horretan, hurrengo paragrafoko jurisdikzio-bidea irekita geratuko da.

Kasu horretan, sei hilabeteko epea egongo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko, berraztertze-errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren hurrengo egunetik hasita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 116. eta 117. artikulua; eta 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

- ii. Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki horren berri ematen den egunaren biharamunetik aurrera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

15.4. Deialdi hau argitaratu eta handik sei hilabetera iragarki-tauletan kontratuak esleitzeko erabakirik argitaratzen ez bada, interesdunek ulertu beharko dute euren eskaera ezetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluari jarraiki.

## **16. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA**

16.1. 15.1. oinarrian adierazitako jakinarazpena jaso eta hamar egunetan, kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte, behar bezala beteta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan:

- i. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen-dokumentua.
- ii. Identifikazio-fitxa, datu pertsonalekin, bankuko datuekin eta Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakiarekin.
- iii. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- iv. Doktore-tituluaren fotokopia konpultsatua edo tituluari dagokin homologazio-agiria.
- v. Lanean hasi delako agiria.

16.2. Eskaerak onartuta dituzten eta 3.1. oinarriaren arabera titulua homologatu behar duten hautagai atzerritarren kasuan, 16.1. oinarrian ezarritako 10 eguneko epea titulua homologatzeko dokumentuan adierazten den egunetik hasiko da zenbatzen.

16.3. Aurreko 16.1. oinarrian adierazitako agiriak Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzan jaso eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean kontratuak formalizatuko dira eta kontratatutako ikertzaileak dagokien unibertsitate sail edo institutueta lanean hasiko dira.

Egun horretan adjudikazioduna kontratua sinatzera etorriko ez balitz edo sailean/institutuan lanean hasiko ez balitz, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

16.4. Eskaerak ebaluatzerakoan kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko izapideak eten egingo dira, edo hala dagokionean, kontratua baliogabetu egingo da.

## **17. OINARRIA. BATERAEZINTASUNAK**

17.1. Deialdi honen babesesan kontratua formalizatzek ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUn artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

17.2. Hori gorabehera, deialdi honen kargura finantzatutako kontratuak bateragarriak izango dira arduraldi partzialeko irakasle-kontratuekin.

17.3. Arduraldi partzialeko kontratu hauetan arduraldia gehienez % 100ekoa izango da eta lansari metatuak ezin izango du aldi baterako kontratatutako ikertzaile baten kostuaren % 100 gainditu.

## **18. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA**

Kontratatutako ikertzaileen uko-egiteen, bajen eta gainerako gorabeheren berri zuzendari zientifikoak edota kontratatutako ikertzaileak berak eman behar dio, hori eragin duena gertatu eta hiru egunen buruan, UPV/EHUn Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzari; jakinarazpenari gehitu behar dizkio kasu bakoitzari dagozkion egiaztapen-dokumentuak.

## **19. OINARRIA. SEGIMENDUA**

19.1. Deialdi honetan kontratatutako langileek egindako lanaren segimendu zientifikoa eta teknikoa Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak egingo du. Zuzendaritzak horretarako prozedura egokiak ezarriko ditu eta egoki iritzitako organoak, batzordeak edo adituak izendatu ahal izango ditu, diru-laguntza aplikatzen dela zaintzeko segimendu- eta egiaztatze-jarduerak gauzatzeko; halaber, egoki irizten dion informazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango du.

19.2. Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak edota deialdiaren kudeaketan lan egiten duten sail eta zerbitzuek hala eskatutakoan, kontratatutako langileek diru-laguntzarekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak beteko dituzte.

Ikertzailea atxikitako ikerketa-taldearen ikertzaile nagusiak ados egon behar du txostenekin. Gainera, txostenarekin batera egindako lanaren deskribapen zehatza aurkeztu behar da eta zer helburu lortu diren adierazi.

## **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUK darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, Errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

- a. Eskatzaileak berak epe luzeago bat izatea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala egin ez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzerara bidali baino lehen.

## **AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Interesdunak deialdiaren, deialdiko oinarrien eta deialditik eratorritako administrazio-egintzen kontra egiteko aukera dauka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak ezarritako epean eta moduan.

Leioan, 2014ko ekainaren 6ean

Fernando Plazaola Muguruza  
Ikerketaren arloko errektoreordea